

ESKU-HARTZE SOZIALA PROGRAMA BURUTZEKO UDALEKO MOZIOA

BAIETZ BASAURI! Plataformaren parte-hartzaileak ezarritako araudian oinarrituta Udaletxeko Plenora luzatzen du eztabaidatu ahal izateko

MOZIOA

Datorren maiatzean, “gure” ordezkariak aukeratu ahal izateko udaletxeko hauteskundeak dauzkagu eta hauetan parte hartzera deituta gaude. Mitinak eta promesak egiteko unea da, ahaztu gabe, krisiak dela eta, narriadura egoera bizitzera bultzatuta izan garela: 4000 inguru langabe, etxe-kaleratzeak, lan prekarietatea, osasuna eta hezkuntza bezalako zerbitzu publikoetan izandako murrizketak, laguntza sozialen gabezia...

Gazteek emanzipazio duina eskuratzeko aukera ez dute eta horrek lanpostua bilatzeko emigratzera bultzatzen ditu; pentsionistek hilabete amaiera heltzeko gorriak ikusten dituzte; komertzio txikiek lazeriak pairatu behar merkataritza enpresa handien aurrean, eta pobrezia atalasean (gero eta feminizatuago), zenbat eta persona gehiago, hoietako askok lanpostua edukita ere. Hau da inguruan bizi dugun egoera.

Gure herrian, Basauri, datorren legislaturan gure ordezkariak izan nahi dituzten pertsonak, enplegu, babes soziala eta etxebizitza bezalako arloetan dauzkaten asmoak azaltzea ezinbestekoa dela jotzen dugu.

Arlo hauetan, herritarrek hurbilen duten instituzioak, hots udaletxeak, esateko eta burutzeko asko duela pentsatzen dugu. Bizi dugun egoeran, herritarrok pairatzen ditugun arazo larri hauei aurre egiteko asmoz, instituzioetatik benetako aurrera pauso eta neurri sakonak hartu beharko dituztela uste dugu, benetan.

Beraz, herritarren eta basauriar bakoitzarekin hartuko dituzten konpromezuak publikoki zehaztea eskatzen diegu; lerro hauekin BAIETZ BASAURI! plataformak atzikitzen dituen proposamenak gure herriaren gehiengo sozialak babesten du.

Azken urte hauetan gure auzokideekin batera antolatu ditugun hainbat jardunaldi, eztabaida eta ekintzetan sortutako proposamenak dira. Noizbait, hauetako batzuk udaletxeko gobernu taldeari zein alderdiei luzatu egin dizkiegu, baztertuta edo ahaztuta utzi izanda ere.

HAU GUZTIA KONTUAN HARTUTA, Basauriko udaletxeko plenoak koherentzia eta gardetasun jardute bezala, iritzi publiko, hautesleria eta Basauriko herritar oroen aurrean, zerrendetan aurkeztuko diren hautagai guztiek, eragile sozial eta sindikalek luzatutako proposamen inguruan izango dituzten iritzi eta jarrerak argitzea ezinbestekoa dela jotzen du. Horrela, hartutako konpromezuak guztiok baloratu ahal izango ditugu.

Aurreko guztia dela eta, Plenoak aintzat hartzera jartzen dira hurrengo

AKORDIOAK

- 1.- Basauriko Udaletxeko Plenoak, Apirileko bilkuran, BAIETZ BASAURI! plataformak, mozioarekin batera aurkeztutako proposamen dokumentu osoa eztabaidatzera eta jarrera hartzera konprometitzen da.
- 2.- Basauriko Udaletxeko Plenoak bilkura honen ondorioak zein ordezkatuta dagoen alderdi bakoitzaren konpromezuak jakinaraziko dizkie herritarrei.

Basaurin, 2015eko Martxoaren 12an